

# BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Aurretik azaldu dugun bezala, guretzat, gure bezeroekin aurrez aurre lan egitea funtzeskoa da, hori dela medio, gure kanal gehienak zuzenekoak izatea nahiko genuke, hots, zuzeneko harremana izatea gure helburua da. Aitzitik, gaur egungo gailu elektronikoen laguntza dela eta, interneten bitartez ere komunikatzearen alde gaude.

Hori dela eta, bide desberdinetatik eskeiniko ditugu gure produktu eta zerbitzuak, hau da, **kanal nahasia** izango dugu:

Alde batetik, gure bezeroekiko **komunikazio kanal zuzenari lehentasuna** emango diogu, gure banaketa eta salmenta kanala denda fisiko baten bitartez egingo dugu, [Deustoko kalean alokatuko dugun lokalean](#). Honetan, terapia ezberdinak eskainiz, *Gu-Geu*-ren ekoizpen jarduera egitean...

Bestalde, elkarlanean arituko garen hornitzaileen sedek erabiliko ditugu gure zerbitzuak eskaintzeko, adibidez, IMQn edo Osakidetzan. Era berean, Sustrai enpresaren eskaintzak hedatzeko, sortutako webgunea erabiliko dugu.

Gure zerbitzuak pertsonalki aurkeztuko ditugu, bezeroak erakartzeko premiarekin. Horretarako, eskaintzen ditugun zerbitzu ezberdinak pertsona berriei aurkeztuko diegu gune desberdinetan. Alde batetik, hainbat egoitzetara joango gara hitzaldiak ematera ([elorduy egoitza](#), [Colisée Barrika egoitza](#), [argaluza egoitza](#)...) uste dugulako, horrelako lekuetan gure zerbitzuak behar dituzten pertsonak daudela, eta laguntza eskaintzera joango gara. Horrez gain, gure elkarteekin ditugun harremanak direla eta, haien laguntza erabiliko dugu gure zerbitzuak haiek ere partekatzeko, eta haien bezeroei gure zerbitzuak jakinarazteko.



Gainera, ahal bada, **irradi bitarteko** informazioa emango dugu ( [radio nervion](#), [euskadi irratia](#)...), baina hau ez dugu hasieratik egingo, aurrekontuak beste gauza batzuetarako erabiltzea hobeagoa dela uste dugulako. Baina, aurreikusten dugun ekintza bat bezala ikusten dugu, adin nagusiko pertsonak gehienetan irratia entzuten dutelako eta ideia paregabea delako entzule gehiagori heltzeko, bereziki, bilatzen ditugun bezeroetara heltzeko.

Marketing-ari dagokionez, hasteko, **horma-irudiak** erabiltzea erabaki dugu. Gure ikuspuntutuz, adin nagusiko pertsonak, ez dute gazteok gailu elektronikoetan egiten dugun erabilera egiten, edota ez dute mugikorrik edota gailu elektronikorik izaten. Horregatik, haiek dauden lekuetan guk egindako horma-irudiak jarriko ditugu; hala nola, egoitzetan, elkarteetan, osasun zentroetan etab. Modu honetan, leku hauetan dauden pertsona nagusiak gure zerbitzuetaz jakinaraziko ditugu, eta modu ez elektroniko batean egingo dugu, horrela, pertsona guztiek aukera izango dute honetaz jakiteko eta gurekin harremanetan jartzeko.

EGIN ZURE GU-GEUa

Ekintza ezberdinak  
Irtzerak  
Terapia ezberdinak  
Zure Gu-geu  
Zure filma laburra

Informazio gehiago hemen:  
[www.gugeustraiak.es](http://www.gugeustraiak.es)




Sarrera Terapiak Inteerak Gu-geu Iritziak

## GU-GEU

Oroitzapenak gure nortasunarek atal garrantzitsua da. Hori dela eta, gordetzea ezinbestekoa da.

HAS ZAITEZ



Horrez gain, **zerbitzu automatizatua** ere izango dugu. Gure [gusustraiak.eus](http://gusustraiak.eus) **webgunea** sortuko dugu, non gure ekintzetaz jakinaraziko ditugu gure bezeroak, gure zerbitzuen informazioa emateaz gain, haien iradokizunak jasoko ditugu, baita haien galderak ere.

Gainera, *Gu-geu* sortzeko bezeroentzako lagungarriak egongo dira, produktuak egiteko plantillak izango dituztelako, gainera, modu presentzial batean aurkeztu ahal ez izanez gero, **gure webgunetik harremanetan jartzeko eta *Gu-Geu* sortzeko aukera izango dute.** Baina webgune zuzen bat izango da, lankide batekin zuzenean harremanetan jartzeko aukera izango duena, hau da, edozein zalantza edo informazio nahi izanez gero, pertsona batekin zuzeneko harremana izateko aukera izango dute bezeroek, geroago gure egoitzan Bilbon eta CEAFA Alzheimer elkartearen egoitzetan edo correosen bitartez beraren eskaria heltzen. Modu honetan, gure bezeroarekiko harreman zuzena eta pertsonala izatea lortuko dugu. Hau ere egiten

dugu, gure lokalera etorri ahal ez diren pertsonak, gure zerbitzuak eskuragarri izateko, eta guztion esku egoteko, nahiz eta ekintza batzuk aurrez aurre ezin egin. Horrela, ez dugu inor gure zerbitzuez kanpo utziko.